

ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA, BIZKAIKO AHALDUN NAGUSIRAKO HAUTAGAIA

“Ilusioz betetzen nau Bizkaiko lehen ahaldun nagusia izateak eta hemen bizi garen pertsona guztien bizitza hobetzeko lanean jarraitu ahal izateak. Eta ilusioz betetzen nau lehen ahaldun nagusia izateak bizitza publikoan eta bestelako esparru batzuetan emakumearen zeregina normalizatzen eta ikusgarri egiten lagun lezakeelako. Soilik emakume izate hutsagatik ez dugu hobeto egingo, ezta okerrago ere, hori argi dago. Baina bai nahiko nuke laguntzea erantzukizun tokietan emakume gehiagok indar handiagoa izan dezaten”.

Elixabete Etxanobe Landajuelaren hausnarketa da hau (Otxandio, 1978). Zuzenbide Ekonomian lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatean, ezkondua, bi seme-alaben ama eta hemendik aurrera EAJ-PNVren hautagaia Bizkaiko Foru Aldundiaren burutzan Unai Rementeria Maiz ordezkatzeko. “Ohore bat da, poztasun handia, besteek nigan jarri duten konfiantza hori, baina erantzukizun erraldoia ere bada, erakundearen beraren garrantziagatik eta historiagatik zein Alderdiaren ibilbideagatik”, aitortu du Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako diputatuak. Politikagintzan eta Administrazioako jardunean esperientzia luzea duen arren, Elixabetek jakin daki herritar askok ez dutela ezagutzen eta bere burua “pertsona langile, leiala eta lanean diziplinatua” bezala aurkezten du. “Beti izan dut nire ingurunea hobetzen laguntzeko bokazioa”.

Esker onez eta hunkituta adierazten du daukan guztia amari eta aitari zor diela. “Aitak eta amak lan eta lan gehiago baino ez dute egin, lantegian eta baserrian, eta nire bizitza pertsonalean eta lanean beti jarraitu dudana adibidea dira. Ahalegina eta dedikazioa”.

Bere epizentroa Otxandio da eta bere aterpea familia, lagunak eta koadrila dira. “Ikastolan hasi ginen lagunak gara gaur ere. Koadrilako bizimodua eta herriko bizimodua egiten dugu, daramagun erritmoarekin asteburuetan besterik ez den arren. Era berean, 21 urte geroago pisukideekin eta unibertsitateko koadrilarekin harremanetan jarraitzen du, bizitzak munduan zehar banatu baditu ere.

Elixabetek Zuzenbide ikasketak egin zituen Deustuko Unibertsitatean eta, 2001ean karrera amaitu ondoren, Madrilera joan zen abokatutza master bat egitera. “Garai hura benetan gogorra izan zen. Ikasten ari nintzen bitartean urgazle gisa lan egiten nuen bulego batean, nire gastuak ordaintzeko. Asko ikasi nuen, eta bi urte geroago etxera itzultzea erabaki nuen toki administrazioarako oposizioak prestatzeko”. “Une hartan zerbitzu publikorako bokazioa piztu zitzaidala uste dut, eta nire ibilbide profesionala administrazioari eskaintzea erabaki nuen; izan ere, irmoki sinesten dut arlo publikoaren garrantzian, gure gizartea eraldatzeko eta hobetzeko”.

Hainbat urtez hainbat udaletan bitarteko-funtzionarioa izan ondoren, azkenean karrerako funtzionarioaren plaza atera zuen Durangon. “Dena emateko urte bi izan ziren, oposaketak prestatzeko eta ateratzeko. Goizean Durangoko Udalean eta arratsaldean, gauetan eta asteburuetan buru belarri ikasten. Ahaleginak merezi izan zuen”.

EUSKO JAURLARITZA ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Politikagintza beti izan dut bizitzako parte bat. “Etxean EAJkoak izan gara beti, familia osoa, aitaren partetik zein amaren partetik. Politika txiki-txikitatik atsegin izan dut eta konbentziturata nago egiten duguna dela herritarren zerbitzura lan egitea. Politikarik gabe ezerk ere ez luke funtzionatuko”, esan du. Bere lehen esperientzia politikoa EAJ-PNVren ordezkari gisa 2007an izan zen Otxandioko zinegotzi gisa, Bildu Alkatetzan zegoela. Eta handik Gasteizera, Eusko Jaurlaritzara. “2013an Parlamenturako zerrendetan sartu nintzen. Kontatu didatenaren arabera Erkorekak oinarri tekniko ona zuen norbait bilatzen zuen Toki Administrazioa gaiak eramateko eta Unai (Unai Rementeria) nitaz hitz egin zion”, esan du.

“Urte haiek benetan onak izan ziren. Josu Erkoreka eta Peru Bazakorekin lan egiteko aukera izan nuen, administrazio publikoan, politikan eta bizitzan eskarmentu handiko pertsonak. Biei esker nire prestakuntza teknikoari benetako politika gehitu nion; harremanen parte bat, eskarmentu handiko pertsonak ezagutzekoa eta negoziatzekoa, adibidez, Euskadiko Toki Erakundearen legearen garatze prozesuan -Udal Legea izango zena- eta herri honetan falta genuen zerbait”.

Udal Legea prestatzen egindako lana oso esperientzia aberasgarria izan zen Etxanorentzat, eta Bazakoren erretiroak ireki zizkion Erakundeekiko Harremanetarako sailburuordetzaren ateak. 2020an, legegintzaldi aldaketarekin, Erkorekarekin batera eta sailburuorde gisa baita ere, Segurtasun sailera joan zen, “asko erakusten duen eskola bat da”, azaldu du.

Garai hark hilabete gutxi batzuk besterik ez zuen iraun. 2021eko martxoko astelehen batez Unai Rementeria Bizkaiko ahaldun nagusiaren deia jaso zuen. “Bere lantaldean sartzea proposatu zidan. Erronka handia zen, zalantzarik gabe espero ez zuen aukera ilusionagarria”, argitu du. “Aurrerapausoa ematea erabaki nuen; Unai gisaseme burutsua da ikuspegi politiko zabalarekin. Unai bezalako pertsonak zentzua ematen diote politikari”.

Etxanobek ere ez du ahaztuko azken Aste Nagusia. Itxaso Atutxa Bizkai Buru Batzarraren presidentea Sabin Etxera deitu zuen halako egun batean. Lan-topaketa arrunt bat izango zelakoan agertu zen baina bertan sorpresa itzela hartu zuen. “Han bertan ezagutu nuen Unai ez zuela ahaldun nagusi izaten jarraituko eta Itxasok BBBren hautagaia izatea proposatu zidan. Nire hautagaitza tokiko batzarrek berretsi dute, eta orain exekutibak eta alderdikidetzak nigan jarri duten konfiantza gogotik itzultzea da nire asmoa”.

EGUNEZ EGUNEKOA

Lana, esfortzua eta familiaren eta lagunen babesa dira tresnarik funtsezkoenak erronkari aurre egiteko. Etxean horrela bizi izan du beti. Aittitte Gregorio, zortzi semeako familiako erdikoak AEBra joan zen 19 urterekin. “Hogei urte gogor eman zituen bertan. 39rekin eta diru apur batekin itzuli eta Bentabarri erosi zuen, ama eta aita bizi diren baserria”, azaldu du.

Elixabete Etxanoberen egun arrunt bat seme alabak dituzten eta hipoteka ordaindu behar duten beste familien antzekoa da, ahal dutena eta bi egiten baitute lana, familia eta bestelakoak uztartzeko, bidean sosegua galdu gabe. Iratzargailua martxan jartzen da 6:30ean. Gosaria familiarekin egin eta, 7:30ean, lanera. Errepidean 45 minutu, Urkiolako mendatea barne. Goizeko albistegia entzun bitartean aprobetxatzen du eguneko lehen deiak egiteko eta laneko gauzak irakurtzeko. Aldundiak dedikazio osoa eskatzen du, aurrez ezarritako ordutegirik gabe, baina: “aitari eta amari kukua egiten saiatzen naiz. Familian afaltzen dugu, telebistan zerbait ikusi eta goizetik ohera, 6:30ak ti-ta batean iristen dira eta”. Asteburuetan, “herrian erosketak egiteko aprobetxatzen dut, baita nire seme-alabei eskola-kirolera eta pinturara laguntzeko ere, eta beti gordetzen dut denbora txakurrarekin paseatzeko”. Bikhe txakurra, erdi artzain alemana eta euskal artzaina, bere ahulezia handienetako bat da, “familiako kide bat da”.

Gozogintzan espezializatuta dagoela aitortzen du, eta berezitasunik bereziena da Errege-opila -hainbatek egiaztatu dutenez-, eta senarraren eta amaginarrebaren errezeta batzuegatik “zoratu” egiten dela dio. Liburuzalea ere bada eta momentu bakoitzak bere liburua duelako eta liburu bakoitzak bere momentua... “Thomas Mannen ‘La montaña mágica’ izenburuarekin hasi nintzen eta horretan geratu naiz, erdizka. Laneko txostenak eta paperak besterik ez baititut irakurtzen!”, aitortu du penaz.

Oraintxura arte erronka handi bat jarri zion bere buruari, kirolarekin hastea, seriotan eta irmotasunez. Koadrilako lagun batekin planifikazioa eginda zuen, baina, bien bitartean beste erronka bat atera zaio, Bizkaiko lehen ahaldun nagusi andrea izatea.